

## **Hirugarren goi hagina**

Hirugarren hagina oso aldakorra da jarrera eta itxura aldetik, goiko nahiz beheko uztaian, eta agertu ere ez da beti agertzen. Halere gehienetan gainontzeko goi haginak baino txikiagoa izaten da<sup>1</sup>. Batez besteko neurriak ez dira, beraz, esanguratsuak.

Gehienetan hiru gailurduna izaten da, masail-aldean gailur bi eta mihi-aldean gailur bakarra dituela. Bakanago gailur mihi-urrun txiki bat agertzen da, lau gailurdun aldakietan hain zuzen. Batzuetan lehenengo hagina bezain garatuta eta bost gailurrez horniturik agertzen da. Aldaki hauen hortz-hobiko apofisia ez da gai izaten hain hagin handi bat bere baitan hartzeko, eta ondorioz herskuntza aldetik gatazkatsua izaten da.

Koroa txikiagoa da lehenengo haginarena baino, altueran nahiz hurbil-urrun ardatzean. Mihi-aldeetik gailur bakar zabal bat ikusi ohi da eta ez da garapen-ildorik agertzen, baina lau gailurdun aldakietan mihi-aldeko ildo txiki bat ere aurki daiteke lantzean behin.

Herste-aldeetik ikusita gainontzeko goi haginaren antza du. Herste-aldeak oro har ildo osagarri gehiago izaten ditu eta ondorioz zimur itxura izaten du. Halere batzuetan koroak egitura bihurria du eta zail gertatzen da gailurrei antzematea.

Gehienetan hiru erro agertzen dira, gehienetan lehenengo eta bigarren haginaren baino txikiagoak, baina sarritan errook guztiz edo zati batean elkarturik agertzen dira.

---

<sup>1</sup> Garn *et al.*, 1963